

NOR-ZER GAREN

1.A. KOMUNIKAZIO GUNE BIZIA

Zeruko Argia 1919. urtean jaio zen. Ordutik, euskarazko prentsaren historiaren muinean dago.

60ko hamarkadako euskal kulturaren berpizkundean aldizkari erreferentziala izan zen. 1980an ARGIA bihurtuta, protagonista izan da euskarazko prentsak eta kulturak egin dituzten urrats guztietan.

ARGIA argitaratzen duen KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L.k, ordea, esparru berriak jorratu ditu, astekariaren eskaintza zabalduz: argitalpenak, jolasak, produktu osagarriak, LUMA denbora-pasen hilabetekaria...eta SAREKO ARGIAren bidez, ate handitik sartu da Interneten.

Etorkizunari begira -Ametzagaiña taldearen barruan dagoeneko-, azpiegiturak eta produktuak hobetzeari ekin dio, komunikazioaren eta bezeroarentzako zerbitzuetan kalitatea helburua estrategikotzat hartuta.

KOMUNIKAZIO BIZIAGOA osatzen duen eskaintza komunikatibo osoa, eta bereziki ARGIA, gaur egun, ezinbesteko erreferentzia da euskal kulturaren eta Euskal Herriko gertaeren aktualitatea jarraitu nahi dutenentzat.

1.B. KOMUNIKAZIO TALDE GARRANTZITSU BATEN PARTAIDE

Komunikazio Biziagoa, SAL enpresa ARGIA astekariaren eta bestelako argitalpenen sustatzailea da. Ametzagaiña taldeko partaidea da gainera, beste bi enpresa hauekin batera:

- ANTZA Komunikazioa, SAL

Hauexek dira komunikazio integraleko eta grafikagintzako enpresa honen eskaintza nagusiak:

.-Kanpainen diseinu grafikoa.

.-Buletin kudeaketa

.-Inprimategi-lanak

.-Web-orrien diseinu eta mantenua.

- ASP, Informatikako Kooperatiba Elkarte.

1997an homologatu zen Teknologiako Zentro gisa. Bere I+G departamentua Saretek deritzon teknologia sareko partaidea da. Hiru lerrotan biltzen da enpresaren ohiko jarduera:

.- Informazioa eta ezagutza kudeatzeko proiektuak

.-Trasnkal: garraio eta logistikarako softwarea

.-Gestikal: enpresaren gestiorako softwarea.

Enpresa talde honek zerbitzu integrala eskaintzen du komunikazioaren, publizitatearen, marketingaren eta informatikaren alorretan.

2.A. INFORMAZIOA eta ANALISIA

ARGIA astekariak aktualitateko gaien jarraipen zehatza egiten du. Elkarriketak, kronikak, iritzi artikulak, erreportajeak. Publiko zabal baten interesak uztartzen dituen gai ugari lantzen du kazetaritzako hainbat estilo erabiliz. Informazio interesgarria, behar bezain luze eta sakon emanda.

Gaztetasuna eta esperientzia batzen dituen kazetari talde batek egiten du ARGIA. Izen handiko sinadurak eta kolaboratzaile-sare zabala eta espezializatua laguntzaile ditu gainera.

Astekariarekin batera, bestalde, hainbat gehigarri banatzen dira: "Larrun" pentsamenduzko aldizkaria hilero; sagargoaren gida eta posterra; euskarazko festa eta ekitaldiei buruzko dossier bereziak...

Otsailean, Euskal Kulturaren Urtekaria banatzen zaie harpidedunei. Urtekariak, urteko gertakizunen jarraipena eta analisisa eta euskal kulturaren aurkibide orokorra eskaintzen ditu: 8.000 erreferentzia baino gehiago, guztira.

2.A. IRAKURLE FIDEL ETA ERREFERENTZIALAK

ARGIA Euskal Herri osora zabaltzen da eta adin, pentsaera eta egoera guztietako pertsonak hartzen dute ARGIA.

Harpidedun gehienak banako partikularrak dira (%72). Harpidedun kolektiboetan, instituzioak, euskaltegiak, ikastetxeak eta zerbitzuak dira nagusi.

Honakoak dira ARGIAren irakurleen ezaugarri nabarmenenak:

- Gehienak goi-mailako ikasketadunak dira, euskaldun alfabetatuak eta egoera ekonomiko egonkorra dutenak.
- Gazte helduak dira: 25-55 urte bitartean dabilta hirutik bi. Etxean, unibertsitatean edo leku publikoetan; nahiz eta harpidedun ez izan, gazte askok irakurtzen du ARGIA.
- Euskal munduan erreferentzialak diren pertsona eta erakunde gehienak daude ARGIAren irakurleen artean.
- Irakurle fidelak dira: %83k astero irakurtzen du astekaria. Batez beste, ordu erdi ematen du bakoitzak ARGIA irakurtzen.

Harpidedunen ezaugarriak

ADINA	
15-34	%19
35-44	%27
45-54	%31
> 54	%33

IKASKETAK	
Lehen mailakoak	%10
LH, Batxilergoa	%22
Goi mailakoak	%64
Beste	%4

ORDENAGAILUAREN ERABILPENA	
Egunero erabiltzen du	%39
Astero erabiltzen du	%14
Noizean behin	%13
Inoiz ez	%33

*ITURRIA: Harpidedunen balorazio-inkesta. SIADECO Ikerketa Elkartea, 2004.

- Harpidedunen banaketa geografikoa:

Araba	%8
Bizkaia	%32
Gipuzkoa	%44
Iparraldea	%3
Nafarroa	%9
Beste	%4

2.B. SAREKO ARGIA: ARGIA, INTERNETEN ETA TEKNOLOGIA BERRIETAN GUZTIZ INTEGRATURIKO PRODUKTUA

ARGIAK oso gertutik jarraitu ditu teknologia berriek komunikazioaren alorrean zabaldu dituzten aukerak, eta Internet bidezko hainbat zerbitzu jarri ditu euskal erabiltzailearen eskura.

- Sareko Argia (www.argia.com)
Euskarazko web gunerik osatuenetako bat da, eduki eta zerbitzu ugariak. Hilero 390.000 orrialde inguru zerbitzatzen ditu:

Informazioa

- .- Hari@: Euskal kulturaren inguruko albisteak, adierazpenak eta iritziak jasotzen dituen buletin elektronikoa. Egunero bidaltzen zaie 2300 harpidedunei.
- .- ARGIA on-line
- .-Larrun on-line
- .- Kanal Tematikoak

Dokumentazioa

- .- Hemeroteka
- .- Gure mendea

Zerbitzuak

- .-Euskal Kulturaren aurkibidea
- .- Kioskoa
- .-Sagardoa
- .-Euskara
- .-Atsotitzak

Aisia

- .-Euskal Herriko Gida
- .-Umorea
- .-Jolasak
- .-Mantxut

- Zerbitzuak

Edozein buletin informatiko egiteko prest dago Sareko Argiako lan taldea, izan ere, eguneroko informazioa du eguneroko lan tresna. Web gunea informazioz mantendu eta berritzeko zerbitzuak eskaintzen ditu. Horren adibide dira www.euskaraz.net web gunean aurki daitekeen "Donostia Gaur" buletina edo www.gipuzkoaeuskaraz.net web guneke edukien parte bat.

2.C. ARGITALPENAK: PROIEKTU EDITORIAL GERO ETA ZABALAGO BATEN MOTOR

Astekaria ardatz duela, ARGIA proiektu editoriala sendotzen ari da, publiko pluralarentzako produktuen bidez.

EGUTEGI TAKOA

Almanaka moduko egutegia da. 2005ean eraberritua, eguneroko informazio erabilgarria dakar azalean eta egunaren lotutako gertaera bitxi eta interesgarriak atzealdean.

LIBURUAK

Astekariak jorratzen dituen gaien inguruko liburuak argitaratzen ditu ARGIAk: bidaia liburuak, umoprea, lokuzioak, gertuko historia...

JOLASAK

Euskaraz dibertitzeko eta aldi berean ikasteko mahai-jolasak. Familia osoaren entretenigarri diren jolas hauen bidez, euskaraz dibertitzeko aukera eskaintzen da, Euskal Herriko eta mundu zabaleko edukiak bilduz.